

EZTABAIDATZEKO MATERIA LA

ESTATUTUAK

ESTATUTUAK

DOKUMENTAZIO
ZENTROA
TXI 20102



Aurkibidea

SINDIKATUAREN EZAUGARRIAK 4

- ABERTZALEA
- EUSKALTZALEA
- SOZIOPOLITIKOA
- ERALDATZAILEA
- KASeko KIDEA
- ANTOLAKUNTZA DEMOKRATIKOA
- ANTOLAKUNTZA TRESNA
- NAZIOARTEKO JITEA

I-DEFINIZIOA 6

- 1. art. -Izena
- 2. art. -Lurralde eremua
- 3. art. -Egoitza
- 4. art. -Ikurra

II-AFILIAZIOA 7

- 5. art. - Afiliazioa
- 6. art. - Afiliazio alta
- 7. art. - Afiliatu txartela
- 8. art. - Afiliatuen eskubideak
- 9. art. - Afiliatuen eginbeharrak
- 10. art. - Diziplina neurriak
- 11. art. - Afiliazio baxa

III-EGITURAK 10

- 12. art. -Eskuhartzerako egiturak
 - a) -Ekintza Sindikala
 - a.1.) -Alorrek Azpialorrek, Batasun Sindikalak
 - a.2.) -Sailatal Sindikala
 - a.3.) -Eskuorde Sindikala
 - b) -Ekintza Erreibindikatiboa

-13. art. -Barne Ordezkaritzarako Egiturak

IV-GIDARITZA ETA ORDEZKARITZARAKO ORGANOAK 13

-14. art. -Biltzarrea

-15. art. -Nazio Konferentzia

-16. art. -Idazkaritza Nazionala

-17. art. -Iraunkor Nazionala

-18. art. -Koordinakuntza Orokorra

V-GIDARITZA ETA ORDEZKARITZARAKO TARTEKO ORGANOAK 17

-19. art. -Herrialdeko Konferentzia

-20. art. -Herrialdeko Idazkaritza

-21. art. -Herrialdeko Iraunkorra

-22. art. -Eskualdeko Idazkaritza

VI-BERME ORGANOAK 20

-23. art. -Berme Batzordea

VII-SINDIKATUAREN BESTELAKO ORGANOAK 21

-24. art. -Prentsa Organoa

VIII-ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK 22

-25. art. -Sindikatuaren ondare eta finantzaketa

-26. art. -Balantzea eta aurrekontuak

-27. art. -Sindikatuaren erantzukizun ekonomikoa

-28. art. -Administrazio erantzukizuna eta erantzukizun pertsonala

-29. art. -Kuota

IX-SINDIKATUAN DEDIKATU DIHARDUTEN PERTSONAK 24

-30. art. -Sindikalistak

- a) Dedikazio osokoak
- b) Ordu kreditudunak
 - b.1) Eskuorde sindikalak
 - b.2) Langilegoaren eskuordeak eta batzordekideak.
- c) Laguntzaile sindikalak.

X-ESTATUTUEN ERALDAKETA 26

-31. art. -Estatutuen eraldaketa

XI-SINDIKATUEAREN DESEGITEA 27

-32. art. -Sindikatuaren desegitea

XEDAPEN IRAGANKORRAK 28

- 1./ Fundazioa
- 2./ Zonaldeztaketa
- 3./ Euskalduntzea

ERANSKINA 29

Koordinatzaile Nagusiaren ahalmenak

SINDIKATUAREN EZAUGARRIAK

ABERTZALEA

Euskal Herria da langileek klase borrokan eta gizarte eraldakuntzan parte hartzen duteneko esparru espezifikoa. Beraz, funtsean, borrokarako ihardunbide espezifikoa eta bereiztua datza, nazio arazoak erreibindikazio eta proposamen eraldatzaile guztien funtsezko elementu pizgarria direlarik. LABen eskuhartzea, beraz, Euskal Estatuaren sendartu eta Euskal Herriaren Subiranotasun Nazionalaren onespenean eta garapena eragozten dituzten oztopo guztiak deuseztera bideratuko da, Sindikatuaren ahalegina egungo euskal gizartearen Euskal Herri Langileak bere patuaren kontrola bereganatuko dueneko gizarte euskaldun bilakatu nahi duten gainerako gizarte alorrekin koordinatuz.

EUSKALTZALEA

Euskara da, zalantzarik gabe, Euskal Herriaren identitatearen ezaugarri nagusia eta, hizkuntza menekotasun egoerak historikoki eta gaur egun ere ekarri eta ekartzen dizkion ondorio eta eragin sakonen jakitun gaudelarik eta Euskal Langileen Mugimenduak berreuskalduntze prozesuan erantzukizun eskerga eta zeregin ezin garrantzitsuagoa dauzkala.

kontutan harturik, beraren berreskurapenari heltzen diogu funtsezko printzipiotzat, eginkizun honetan buru-belarri aritzeko konpromezuan oinarrituz, LABek, atxakia oro baztertuz, aitzindari eta sustatzaile izan behar du euskararen erabilpenari dagokionez, bai barne antolakuntzako ihardunean ikaskuntzarako tresnak ezarri, bai gure Herria berreuskalduntzeko prozesuan parte hartuz, eta ELMren iharduna ere helburu horretarantz bideratzen saiatu behar du.

SOZIOPOLITIKOA

Iharduteko esparrurik funtsezkoena eta lehenengoa lantokia da, eta eskuhartzerako esparru horretatik hartzen ditugu geure gain Euskal Herriaren erreibindikazio ekonomiko, politiko eta sozialak. Zapalkuntza desberdinen eraginak baldintzatzen eta oztopatzen du gizarte eraldakuntza; ondorioz, LABek eskuhartze sozio-politikorako beharrezko hedatuko du esparru eta arazo guztietan, langilearen interesari Estatuaren eskusartzearen eraginpean dauden aldetik ekinez, hots, lantokia den markotik bertatik at.

ERALDATZAILEA

LAB klase sindikatua euskal langileak gure gizarteak unean unean pairatzen dituen zapalkuntza guztiak gainditzeko bidean dauzkan interes hurbil eta estrategikoen alde azaltzen da eta egungo gizarte kapitalista gainditu eta Sozialismorantz zuzenduko ditu urratsak.

KASeko KIDEA

Hego Euskal Herria eta Estatu Espainiarraren arteko gatazka politikoaren egungo egoeran, LABek bere eskuhartze eremu guztietan bere egituren erabateko autonomian, eta ELMan eragiteko ikuspegi globala edukitzeko helburuan oinarriturik, KAS Blokeko partaide izan behar du antolakuntza esparru honen eginkizun bereizgarria den dinamizatze politikoan.

ANTOLAKUNTZA DEMOKRATIKOA

LABek, informazio eta gardentasunerako tresna egokiak eskainirik, afiliatu eta langileen partehartzea hartuko du barne zein kanpo ihardunerako funtsezko ardatzat, horixe baita sindikatuaren barne demokrazia indartu eta langileriaren protagonismoa sustatzeko ezinbesteko bidea.

Burokratismo, aparatukeria, e.a.erako joerak deuseztu eta ekidin behar dira erabat barne iharduna eta eskuhartzean, era horretako inertziak sor daitezen eragotziz. Izan ere, inertziok minbiziaren eragin bera eduki dezakete guztiz kontrako baloreak piztu behar dituen gure erakundearen garapenean.

Lantokietan asanblada orokorrak eta ordezkaritzarako organo baterakoiak sustatzeak, hots, langileak ukitzen dituzten arazo guztietan parte hartzera bultzatzeak joera iraunkorra izan behar du.

Partehartzea eta barne bizitasuna (informazioa, analisiak, lan-ildoak...) sustatzeko irizpide berorrek oinarritzko ezaugarria izan behar du egituren ihardunean maila guztietan, lantoki bakoitzeko sailatal sindikaletatik hasita Sindikatuaren organo goreneraino.

ANTOLAKUNTZA TRESNA

Gizarte berria lortzeko helburutik abiatu eta berori lortzeko prozesuan aurreranzko urratsak ematearren langileak azaltzen dituen erreibindikazio sozial eta politikoen lorpenak beraren protagonismo zuzena exigitzen duelarik, LABek antolakuntza tresna elkargarria izateko eskaintzen du bere burua nazio eta gizarte askapenaren aldeko borrokarako ekarpena izan dadin.

NAZIOARTEKO JITEA

Herri zapaldu eta hustiratua garen aldetik, ondo dakigu askapenerako borroka diren neketsu eta gogorrak. Honexegatik, irmoki eusten diogu munduko herri guztiekin bat egiteko geure konpromezuari, egunen batean pertsona desberdinez baina eskubide berberak dauzkaten osaturiko unibertsoan benetako demokrazia eta gizarte justizia lortzeko.

Errealitate desberdinak, antolakuntza eredu desberdinak eta prozesu bakoitzaren ezaugarri desberdinekiko erabateko begirunea daukagu, baina ez dugu inola ere arbuiatuko esperientzia zein iritzien trukaketa.

Euskal Herriarentzako etorkizun hobea daukagu helburu gainerako herriekiko begirunean eta elkarkidetzan funtsatuz, eta gure harremanak, orain nahiz etorkizunean, berdintasunean oinarrituko dira.

Nazioarteko jiteko konpromezu hau sindikatuarena ezezik berau osatzen duten pertsona guztien eta bakoitzarena ere bada, eta beren gain hartuko dute beti gainerako herriak ezagutu eta beroriekin lan egiteko zinezko ardura.

I-DEFINIZIOA

-1. art. - Izena

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK, LAB klase sindikatu abertzalea, koadro eta masa erakundea da, bai eta langileriak, balio demokratikoak eta gizarte justizia guztiz garaturik egongo direneko Euskadi independente, sozialista, birbatua eta euskalduna lortzeko eraldakuntza politiko-sozialetan aurrera egiteko tresna ere.

-2. art. - Lurralde eremua

Sindikatuaren egitura eta iharduera garatzeko lurralde eremua bat dator Hego Euskal Herriko lurralde historikoekin (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), nazio-lurraldearen gainerakoan (Ipar Euskal Herrian) geroago garatzeko helburua aldaratu gabe.

-3. art. - Egoitza

Egoitza Donostian dago Zorroaga Pasealekua, 7 Solairuartea eta aldatzea egongo da Idazkaritza Nazionalak hala erabakiz gero.

-4. art. - Ikurra

LABen agiri publiko, propaganda, argitarapenak, e.a.ean agertu behar den logotipoa Rockwell letra mota ertain, larri, hustuz egina da eta behealdean zerrenda bat dauka izen osoa Rockwell letra xehe lodiz agertzen duena kaxa eginez, guztia bandera gisako errektangelu batean sarturik.

Ikurra zirkulu baten erdian dagoen argizariohol horizontal batek osatzen du eta oinarrian «LAB» inizialak daude gainezarririk euskal letra motaz; erdialde eta goialdean lantegiaren ikurra den tximinia dago eta bertatik sortzen da euskal ikur nazionala, Ikurrina alegia, Sindikatuaren historia eta hastapenak irudikatuz. Honek bigarren mailako garrantzia dauka publizitate euskarrietan, eta bere eginkizuna, nagusiki, itzaltsu eta protokolozkoa da.

II-AFILIAZIOA

-5. art. - Afiliazioa

Langile orok dauzka LABen afiliatu izateko eskubide eta aukera, beraren funts eta helburuak onartu eta estatutuak zein beraren organoetan sortutako erabakiak betez gero.

-6. art. - Afiliazio alta

Afiliazioa sailatal sindikalaren edo barne ordezkartzarako dagokion egituraren bitartez gauzatu da.

Afiliatu berria eskuhartze eta barne ordezkartzarako dagokion egituraren sartuko da, bai eta dagokion kuota ordainduko ere.

LABen sartzeko eskabidea talde batek edo aurretiaz eraturako sindikatu batek eginez gero, berorretako kide bakoitza afiliatu behar da Sindikatuan eskabidea onar dadin. Idazkaritza Nazionalak hartuko du lehenago horri buruzko erabakia, alorreko edo barne ordezkartzarako dagokion egiturak txostena aurkeztu ondoren.

-7. art. - Afiliatu txartela

Sindikatuak tajukera bakarreko txartel bat luzatuko dio afiliatuari.

-8. art. - Afiliatuen eskubideak

Afiliatu orok honakorako eskubidea dauka:

- a) Informazioa jasotzeko eta interesatzen zaion edozeri buruz entzun dakion.
- b) Iharduera eta erabakietan dagokion mailan parte hartzeko.
- c) Bere burua Sindikatuaren egiturako edozein organotarako hautagai aurkezteko, bai eta eskuorde aurkezteko antola daitezkeen kongresuetara joateko, gertakizunerako deialdia egiten denean sei hilabete baldin badaramatza afiliaturik.
- d) Sindikatuaren edozein organotarako hautatu eta hautatua izateko. Gidaritza eta ordezkartzarako organoetarako kideak bozketaz hautatuko dira eta karguok berrautagarri eta ezeztagarritzat jotzen dira, hautatu zituzten organoetako gehiengoaren erabakia horren aldekoa izanez gero.
- e) Dagokien egituretatik aholkularitza sindikal eta teknikoa jasotzeko, Sindikatuaren organo eskumendunek horretarako erabakitako baldintza eta bideez.
- f) Maila desberdinetako gidaritza organoetako edozeinek erabaki litzakeen ebazpen edo

diziplina neurrien aurka, Sindikatuaren dagokien organoen bitartekaritza edo eskuhartzea eskatzeko.

- g) Sindikatuaren prentsa-organoa (Iraultzen) eta Nazio Konferentzia zein Biltzarreko erabakiei buruzko informazioa jasotzeko.

-9. art. - Afiliatuen eginbeharrak

Afiliatu orok honako eginbeharrak dauzka:

- a) Iharduera eta erabakietan dagokion mailan parte hartzea
- b) Estatutuak bete eta Sindikatuak tajututako asmo eta helburuen lorpenaren alde ihardutea.
- c) Organo eta egitura desberdinetan hartutako erabakiak errespetatu, defendatu eta gauza daitezzen jagotea. Sindikatuaren egituretako edozeinetan hartzen diren erabakiek lotarazteko jitea daukate kide guztientzat.
- d) Kuota, Sindikatuaren organo eskumendunak ezartzen dituen kopuru, ordainkera eta maiztasunez ordaintzea.

-10. art. - Diziplina neurriak

- a) Estatutuak urratu edo Sindikatuaren asmo eta helburuen kontra jotzen duten ekintzak burutzen dituen afiliatuari diziplina neurri egokiak ezarriko zaizkio Sindikatuak horretaz eztabaidatu ondoren.
- b) Zehatze-txosten oro honela izapidetuko da:
 - 1/ Zehapena dagokion pertsona dagoen organoak leporatzen zaiona eta beronen kariak argi eta zehatz jasotzen dituen txosten bat prestatuko du, eta aipatu pertsona horri 10 eguneko epea eskuetsiko dio zuribide plegua aurkez dezan.
 - 2/ Aipatu pertsona dagoen organoa baino goragoko hurrengoak 30 eguneko epean arazoari buruz ebatziko du berori entzundakoan. Organo hau inhibitzen bada, bera baino goragoko hurrengoak erabakiko du, baina prozedurak ezin du 60 egunetik gora iraun.
 - 3/ Organo desberdinen arteko eskumen-gatazka gertatzera, Berme Batzordeak helduko dio kontuari eta berorri buruzko ebazpena emango.
 - 4/ Sindikatuaren edozein organok emandako zehatze-ebazpena gertatzean, Berme Batzordearen aurrean egin ahal izango da errekurtsioa 10 egunetik beherako epean, eta Batzorde honek aipatu errekurtsioaren berri eduki eta 30 eguneko epean ebatzi beharko du.
 - 5/ Zehapena ebazteko, organo zehatzaileko kideen gehiengoak egon behar du beraren alde.

6/ Egitura zein organo bi edo gehiagoren artean, ebatzitakoari buruzko bestiritzirik agertuz gero, espedientea Berme Batzordeari igorriko zaio, eta honek 60 egunetik beherako epean ebatziko du.

c) Diziplina neurri motak:

c.1/ - Zentzarazpena.

c.2/ - Afiliatu izateagatik dauzkan eskubideak hilabete eta urtebete bitartekoa izan daitekeen denboraldi batez ezabatzea.

c.3/ - Afiliatu izateagatik dauzkan eskubideak zehatze-ebazpena eman den unetik hurrengo Biltzarrera arte ezabatzea.

c.4/ - Hobentasun handiko kasuetan kanporaketa erabakiko da.

-11. art. - Afiliazio baxa

a) Afiliatuak bere borondatez erabakitako baxa.

b) Dagokion kuota sei hilabetean ordaindu ez izateagatikoa. Berrafiliatuz gero, lehen zeuzkan eskubideak berreskuratzeko, ordaintzeke utzi zituen kuotak ordaindu beharko ditu.

c) Sindikatuaren organo eskumendunek emandako zehatze-ebazpen irmoagatikoa.

d) Afiliatuaren baxak, ordurarte edukitako erantzukizun edo ardura maila guztiei utzi beharra dakar.

III-EGITURAK

-12. art. - Eskuhartzerako egiturak

a) -Ekintza Sindikala

Langile erakunde orotan eskuhartze sindikalerako oinarrizko markoei loturik egon ohi den berezko egitura da; bertatik bideratzen eta integratzen dira langileen partehartze eta ekarpenak.

Afiliatuak Sindikatuaren inguruan elkartzen ditueneko antolakuntza bidea da ere, langileengandik hurbilen dauden markoetako enpresa, lantokiak, alorrak, e.a. oinarrizko eta funtsezko bilbea eratuz.

a.1) -Alorrak, Azpialorrak, Batasun Sindikalak.

Lantokitik abiatu eta iharduera alorraren arabera, eskuhartze espezifikoa behar duten arazoei (Negoziazio kolektiboa, kontratazioa, lan baldintzak, uzta-razteak, ekonomi egoera,...) kolektiboki erantzuteko xedez, langileak bertikalki antolatzen dituen egitura da.

a.2) -Sailatal Sindikala.

Afiliazioak erabakitzen duen lantoki edo enpresetan eratzen den oinarrizko egitura sindikala da.

Enpresak lurralde eremu jakin batean lantoki bat baino gehiago daukanean, guztiok biltzen dituzten sailatal sindikalak eratu ahal izango dira.

Sailatal sindikala, zehazten den esparruko afiliatu guztiak osatuko dute eta ihardunbide demokratikoa edukiko dute, hots, erabaki guztiak gehiengoaren iritzia- ren arabera izango dira.

Afiliatuak eurek sustatuko dute sailatal sindikala osatzea, edo bestela, dagokion alor edo lurralde egiturak.

Sailatal sindikaletako eskuordeak beraietako bakoitzean hautatuko dira eta, enpresari jakinarazteko, Sindikatua herrialdean ordezkatzen duen pertsonaren sinadura behar izango da.

Eginkizunak hobeto garatzeko xedez, gutxienezko egitura eratuko da beraien tamainaren arabera. Egitura hau, sailatal sindikalarekiko lankidetzan, bere mailari dagokion alor edo barne ordezkaritzarako egiturarekin artikulatuko da.

Hona hemen egitura honen eginkizunak:

-Sindikatuaren gidaritza organoen politika, erabakiak eta ebazpenak gauzatzea.

-Sindikatuaren funtsa ideologikoak eta eskuartzeko ildoak oinarrizko lurralde egiturarekin batera hedatu eta garatzea.

-LABek enpresa batzorde eta asanblada orokorretara eramango dituen proposamenak eztabaidatu eta prestatzea.

-Sindikatuaren propaganda lantokietan banatzea.

-Sindikatuaren organoek beharrezkotzat jotzen dituzten bestelako ekimenak burutu eta, horrela, lantokian erakundearen funtzionamendu egoki eta hedapenari laguntzea.

a.3) -Eskuorde Sindikala.

-Sailatal sindikala eratzen den enpresa edo lantokietan, bertako kideen artean hautatu beharko dira eskuorde sindikalak unean-unean dauden ahalbideen arabera.

-Hautaketa afiliatuen asanbladan egingo da gehiengoaren erabakiaz.

-Gehiengoaren erabakia sailatal sindikaleko afiliatuen asanbladak edo Sindikatuaren organo eskumendunek jo ahal izango dute atzera, estatutu hauetan ezarritako izapideei jarraikiz.

-Hona hemen bete behar izango dituzten eginkizunak:

-Sailatal sindikala eta beronen iharduerak eta, halaber, berori Sindikatuaren organo eta egiturekin koordinatzea.

-Enpresaren aurrean sailatal sindikala ordezkatzeta.

-Sailatal sindikalaren eta Sindikatuaren gidaritza organoen erabakiak aplikatzea.

-Sailatal sindikalak eta Sindikatuaren organoek bere eginkizunen garapenean eskatzen diotena betetzea.

b) -Ekintza Erreibindikatioa.

Ekintza Sindikal eta Instituzionalerako egituren erantzukizun zehatz guztiak, eztabaida orokorra eta eskuhartzearen garapenerako koordinatzen dituen egitura da.

Honen eginkizuna Ekintza Sindikal eta Instituzionalerako egituretako eskuhartzea Sindikatuaren organoen ebazpen eta erabakietatik abiatuz dinamizatzea da, bai eta aipatu organoei erabakiak hartu ahal izateko balioespen eta proposamenak eskaintzea.

-13. art. - Barne Ordezkaritzarako egiturak

Sindikatuaren iharduera guztiak, bai Ekintza Sindikalerako bai Ekintza Erreibindikatio eta Instituzionalerako egiturena, koordinatu eta globalizatzear arduratzen da egitura hau.

Egitura desberdinek eta erakundearen arlo eta aparatuek ekartzen dizkioten balioespenak erabiliz, beharrezko tresnak edukiko ditu Gidaritza Organoen bitartez Sindikatuaren eskuhartze sindikal, iharduera, egitaraua, antolakuntza politika eta nazioarteko politika eztabaidatu, tajutu eta ebazpen egokiak eman ahal izateko.

Egitura hauek lurralde tajukera daukate herri, eskualde, herrialde eta nazio mailan.

IV-GIDARITZA ETA ORDEZKARITZARAKO ORGANOAK

-14. art. - Biltzarrea

- a) Biltzarrea Sindikatuak eztabaidatu eta erabakitzeko daukan organo gorena da.
- b) Egituraren lurralde markoetan, berauetako afiliatuen ehunekoaren arabera hautatutako 600 eskuordek osatuko dute, eskubide osoko kideak diren Idazkaritza Nazionalekoez gain.
- c) Lau urtero bilduko da ohizko jitez, edo aparteko jitez Nazio Konferentziak gehiengo osoz hala erabakitzen duenean.
- d) Ohizko biltzarretarako deialdia Nazio Konferentziak egingo du sei hilabete lehenago gutxienez, eta berorrek prestatuko ditu araudi eta txosten politikoa (kudeaketa txostena, txosten orokorra,...) hilabete lehenago.
- e) Biltzarrean eztabaidatuko diren txosten eta gainerako dokumentuak lau hilabete lehenago gutxienez egongo dira afiliatuen esku.
- f) Aparteko biltzarrea izatera, lehen azaldutako epeak murriztu ahal izango dira, deialdia eta biltzarrearen artean bi hilabeteko epea egon beharko delarik.
- g) Nazio Konferentziak onartuko ditu arautegia, ordezkaritza-aldagaiak eta funtzionamendua.
- h) Erabaki eta ebazpenak gehiengo bakunaren aldeotasunaz hartuko dira, Sindikatuaren ezaugarriak eta definizioari dagokiena ezik, hau aldarazteko botua emateko eskubidea daukatenean 2/3ren aldeotasuna behar baita.
- j) Hona hemen Biltzarrearen eskumenak:
 - j.1/ -Sindikatuaren ihardunbide sindikal, iharduera, egitaraua, antolakuntza politika eta nazioarteko politika zehaztea.
 - j.2/ -Idazkaritza Nazionala eta Iraunkor Nazionala hautatzea.
 - j.3/ -Estatutuak onartu eta aldaraztea.
 - j.4/ -Nazioarteko erakundeei atxekitzea (nazioarteko afiliazioa).
 - j.5/ -Sindikatuaren oinarritzko funtseko ideologikoak aplikatu daitezkeen jagoteko egoki deritzen kontrol organoak sortzea.
 - j.6/ -Sindikatuaren desegitea erabakitzea.

-15. art. - Nazio Konferentzia

- a) Biltzarren arteko epealdietan, gidaritza eta ordezkartzarako organo gorena da.
- b) Honakoek osatuko dute:
 - b.1/ - Idazkaritza Nazionala osoak.
 - b.2/ - Herrialdeko Idazkari guztiek.
 - b.3/ - Pertsona batek 500 afiliatu edo honen zatiki bakoitzeko; pertsona hau afiliatuen eskualdeko asanbladetan hautatuko da.
- c) Organo hau osatzen duten kide guztiak nominalki hautatuko dira, eta hautatzean egokitu zaien erantzukizuna daukaten bitartean edukiko dute kide izaera.
- d) Idazkaritza Nazionalak deiturik bilduko da bi aldiz gutxienez urtean.
- e) Erabaki eta ebazpenak gehiengo bakunaren aldekoatasunaz hartuko dira.
- f) Hona hemen Konferentziaren eskumenak:
 - f.1/ -Biltzarrean tratatutako gai desberdinen garapena eztabaidatu eta erabakitzea eta bertan hartutako erabakiak bete daitezzen jagotea.
 - f.2/ -Biltzarrerako deialdia egin eta biltzarre-aurreko arautegia zein Biltzarreko funtzionamendua onartzea.
 - f.3/ -Nazioarteko erakundeei atxekitzeko erabaki iragankorra har dezake; erabakia Biltzarrean berretsi beharko da.
 - f.4/ -Bertoko kideen artean Berme Batzordea hautatu eta beronen araudia onartzea.
 - f.5/ -Bere eskumen mailan zehatze-ebazpena ematea, estatutu hauetan ezarritako modu eta prozedurak erabiliz.
 - f.6/ -Idazkaritza Nazionalean gerta daitezkeen hutsak betetzea, han gehienez kideetako 2/5 izango dituelarik.
 - f.7/ -Estatutu hauetan esleai dakizkiokeen beste eskumen batzuk.

-16. art. - Idazkaritza Nazionala

- a) Nazio Konferentzia eta Biltzarrean hartutako erabakiak eta jarraibideak aplikatu daitezkeen arduratzen den gidaritza eta ordezkartzarako organoa da.

- b) Idazkaritza Nazionala Biltzarrean hautatutako 23 pertsonak osatzen dute. INk beste 9 pertsona bitarte ere hautatu ahal izango ditu Biltzarreen artean organo honetan gerta daitezkeen hutsak betetzeko xedez. Hautaketa hauek ohizko Nazio Konferentziak edo beronetarako bereziki antolatuak berretsi beharko ditu. INko partaideek euskaldun izan behar dute.
- c) Iraunkor Nazionalak egingo du, hilabete bat lehenago gutxienez, organo honen bileretarako deialdia, eta ebazpen edo erabakiak gehiengoaren aldekoatasunaz hartuko dira.
- d) Hona hemen Idazkaritza Nazionalaren eskumenak:
- d.1/ -Sindikatuaren edozein instantziaren aurrean eta estatutu hauetan aurrikusitako eran ordezkatzea.
 - d.2/ -Biltzarre eta Nazio Konferentzian hartutako erabaki eta ebazpenak gauzatzea.
 - d.3/ -Sindikatuaren gidaritza bermatzea, beharrezko izanez gero Nazio Konferentzien artean premiaz hartu beharreko erabakiak hartuz ere.
 - d.4/ -Iraunkor Nazionalak proposatutako gastu eta sarreraren aurrekontua onartzea.
 - d.5/ -Kuota kopurua eta ordainkera zehaztea.
 - d.6/ -Sindikatuaren dihardutenei ordaintzeko irizpideak zehaztea.
 - d.7/ -Bere gain dauzkan eginkizunak hobeto garatzeko beharrezko deritzen batzordeak sortzea.
 - d.8/ -Sindikatuaren iharduna eta antolakuntza bermatzea.
 - d.9/ -Nazio Konferentziak eta berauen aurreko prozedurak dinamizatu eta berorietarako deialdiak egitea.
 - d.10/ -Biltzarreen artean Nazio Konferentziaren aurrean eta Biltzarrearen aurrean erantzutea, burututako kudeaketari buruzko txostena aurkeztuz.
 - d.11/ -Sindikatuaren dedikazio osoz diharduten pertsonak izendatu edo kargua uztaraztea.
 - d.12/ -Zehatze-ebazpena ematea bere eskumena denean, estatutu hauetan jasotako prozedura eta eran.

-17. art. - Iraunkor Nazionala

- a) Idazkaritza Nazionalaren ebazpen eta erabakiak gauzatzen dituen organo beterazlea da, eta organo berorren aurrean eman behar du bere ihardunaren garapenaren berri.

- b) Iraunkor Nazionala Biltzarrean hautatutako 11 pertsonak osatzen dute.
- c) Organo hau astero bilduko da gutxienez, eta erabakiak gehiengoaren aldekoatasunaz hartuko ditu.
- d) Iraunkor Nazionalaren eskumenak honakoak dira:
 - d.1/ -Idazkaritza Nazionalak hartutako erabaki eta ebazpenak gauzatzea, horretarako baliabide egokiak bilaturik.
 - d.2/ -Sindikatuaren gidaritza iraunkorra ziurtatzea eta, beharrezko izatera, premiazko erabakiak hartu eta Idazkaritza Nazionalari jakinaraztea.
 - d.3/ -Idazkaritza Nazionalaren bileretarako deialdia egin eta, berauetan sortzen diren dinamiken garapen egokia jagotea.
 - d.4/ -Sindikatuaren organo, batzorde, aparatua eta arlo guztien funtzionamendua eta iharduerak koordinatu eta Idazkaritza Nazionalari horren berri ematea.
 - d.5/ -Sindikatuaren dedikazio osoz ihardutea eskatzen duten ardura-postuetan arituko direnak izendatzea.
 - d.6/ -Iraultzen eta argitarapen nazionalen argitaratze-ildoaren gidaritzan ihardutea.

-18. art. - Koordinazio Orokorra

- a) Koordinatzaile Nagusiaren ardura izango da Sindikatuaren ordezkariak publiko zein legezkoa, eta honek Nazio Konferentzia eta Idazkaritza Nazionalaren gehiengoak erabakitakoaren arabera ihardungo du.
- b) Honek edukiko dituen ahalmenak estatutu hauetako eranskinean jasotakoak dira.
- c) Estatutu hauetan jasotzen diren ahalmen eta eginkizunak Sindikatuaren organo eta kide egokiei eskuordetu ahal izango zaizkie.
- d) Iraunkor Nazionalak, pertsona hau egon ezean, beroni dagozkion eginkizunak hartuko ditu bere gain kolegiatuki.
- e) Honek Sindikatuaren edozein organo zein egituraren bileretan parte hartzea izango du, bai eta bere gain hartu dituen eginkizunak hobeto garatzeko beharrezko harremanak izatea ere.
- f) Koordinatzaile Nagusiak karguzketa aurkeztuz gero, Nazio Konferentziak ekin beharko dio ordezkari gehiengo osoaren aldekoatasunaz.

V-GIDARITZA ETA ORDEZKARITZARAKO TARTEKO ORGANOAK

-19. art. - Herrialdeko Konferentzia

a) Gidaritza nazionalerako organoek gai desberdinei dagokienez hartzen dituzten erabaki eta ebazpenak herrialdearen errealitate espezifikoa artikulatzen eta moldatzen dituen gidaritza organoa da.

b) Honakoek osatuko dute:

b.1/ -Herrialdeko Idazkaritza osoak.

b.2/ -Idazkaritza Nazionalako kideetarik dagokion herrialdean dihardutenek (hizpidez baina hautespiderik gabe).

b.3/ -Afiliatuen eskualdeko asanbladetan hautatutako pertsona batek 150 afiliatu edo beronen zatiki bakoitzeko.

c) Organo honetarako kide guztiak nominalki hautatuko dira eta, hautatzean egokitu zaien erantzukizun edo ardura daukaten bitartean hartuko dira bertako kideetat.

d) Nazio Konferentziarena bezalako gutxienezko maiztasunaz bilduko da, berori bildu baino lehenagoko ezinbesteko urratsa delarik.

e) Erabaki eta ebazpenak gehiengo bakunaren aldekoatasunaz hartuko dira.

f) Hona hemen dauzkan eskumenak:

f.1/ - Nazio organoei, berauek ekin beharreko gai orokor eta espezifikoei, zein herrialdean soilik tratatu beharreko gaiei buruzko bere ikuspegia eskaini eta eztabaidatzea.

f.2/ - Herrialdeko Koordinazioa bideratuko duen pertsona Biltzarreari proposatzea, edo Nazio Konferentziari hura ordeztu behar izatera.

f.3/ - Idazkaritza Nazionalako mahaikide izateko pertsona egokiak Biltzarreari proposatzea, edo Nazio Konferentziari beraiek ordeztu behar izatera.

f.4/ - Herrialdeko Idazkaritza eta Iraunkorra hautatzea.

-20. art. - Herrialdeko Idazkaritza

a) Bai nazio gidaritzarako organoek bai Herrialdeko Konferentziak hartutako erabaki eta ebazpenak herrialdearen errealitate espezifikoa aplikatzeko ardura daukan gidaritzarako organoa da.

b) Honakoek osatuko dute:

b.1/ -Herrialdeko Koordinazioaren arduradunak.

b.2/ -Eskualdeko Koordinazioaren arduradunak.

b.3/ -Batasun Sindikal, Sailatal Sindikal eta Alorren herrialdeko arduradunak.

b.4/ -Batasun Sindikal, Sailatal Sindikal eta Alorretako arduradun nazionalerik herrialdean dihardutenek.

b.5/ -Ekintza Erreibindikatibo eta Negoziazio Kolektiboaren herrialdeko arduradunak.

b.6/ -Arlo eta Aparatuetako herrialdeko arduradunak.

c) Organo honetako kide guztiak nominalki izendatuko dira eta hautatzean egokitu zaien erantzukizun edo ardura daukaten bitartean hartuko dira bertako kideetat.

d) Herrialdeko Iraunkorraren proposamenez bilduko da hilabetean behin gutxienez, Idazkaritza Nazionalaren bileren aurreko ezinbesteko urratsa delarik.

e) Erabaki eta ebazpenak gehiengo bakunaren aldeotasunaz hartuko dira.

f) Hona hemen dauzkan eskumenak:

f.1/ - Nazio organoei, berauek ekin beharreko gai orokor eta espezifikoiei, zein herrialdean soilik tratatu beharreko gaiei buruzko bere ikuspegia eskaini eta eztabaiatzea.

f.2/ - Herrialdeko Konferentziarako deialdia egitea.

f.3/ - Zehatze-ebazpena ematea bere eskumena denean, estatutu hauetan jasotako prozedura eta eran.

-21. art. - Herrialdeko Iraunkorra

a) Herrialdeko Idazkaritza zein Konferentziaren ebazpen eta erabakiak eta goragoko organoek hartutakoak gauzatzen dituen herrialdeko organo betetzailea da.

b) Honakoek osatuko dute:

b.1/ -Herrialdeko Koordinazioaren arduradunak.

b.2/ -Eskualdeko Koordinazioaren arduradunak.

b.3/ -Ekintza Erreibindikatibo eta Negoziazio Kolektiboaren herrialdeko arduradunek.

b.4/ -Barne Antolakuntza, Idazkaritza Tekniko Ekonomiko, Idazkaritza Tekniko Jurikiko eta Komunikazio arlorako herrialdeko arduradunek.

c) Astean behin bilduko dira gutxienez.

d) Erabakiak gehiengo bakunaren aldeotasunaz hartuko dira.

e) Hona hemen dauzkan eskumenak:

e.1/ -Herrialdeko Konferentzia zein Idazkaritzaren ebazpen eta erabakiak eta goragoko organoek hartutakoak gauzatzea.

e.2/ -Herrialdeko Idazkaritzaren bileretarako deialdia egitea.

e.3/ -Herrialdeko batzorde, aparatatu eta arloen funtzionamendua eta iharduerak koordinatzea eta Herrialdeko Idazkaritzari berorren berri ematea.

-22. art. - Eskualdeko Idazkaritza

a) Eskualdeko organo dinamizatzailea da. Goragoko organoen ebazpen eta erabakiak gauzatzen ditu eta, bere gogoetak eskaintzen dizkie beroriei, Sindikatuaren oinarrizko organoa den aldetik, sailatal sindikal, eskuorde eta afiliatuekiko hurbiltasun eta harreman iraunkorrak ematen dioten gaitasunean funtsatuz.

b) Eskualdeko Afiliatuen Asanbladak hautatuko ditu organo honetako kideak, honako ardurak hauek gutxienez beteko dituztenak : Eskualdeko Koordinazioa, Herriko Koordinazioa, Ekintza Erreibindikatiboa, Finantzak, Komunikazioa eta Euskalduntzea.

c) Organo honek, gure eskuhartze sozio-politikoa benetan eraginkorra izan dadin behar diren herri-egiturak (Herrietako Batasun-guneak) eratuko ditu.

d) Astero bilduko da.

VI-BERME ORGANOAK

-23. art. - Berme batzordea

Batzorde hau Nazio Konferentziak bere kideen artean hautatuko dituen bost pertsonak osatuko dute, lau Herrialdeko Konferentzia bakoitzak proposatuak eta bestea Idazkaritza Nazionalak proposatutakoa. Batzorde honetatik kanpo geratuko dira Idazkaritza Nazionaleko kideak.

Batzorde honek burutuko dituen eginkizunak honakoak dira:

- a) Bitartekari ihardungo du afiliatuen artean, afiliatuak eta Sindikatuaren organoen artean eta maila desberdinetako organoen artean sor daitezkeen gatazketan.
- b) Ihardun behar dueneko kasu guztietan txosten eta ebazpenak igorriko ditu, eta egoki deritzen neurriak hartuko ditu, bai eta diziplina neurriak ere. Neurriok gorajoezinezkoak izango dira.
- c) Iharduteko behar duen informazio guztia eskuratu ahal izango du, bai eta kasu bakoitzean behar dituen iritzi-alderaketa eta harremanak ere.
- d) Diziplina neurriak ebatzi behar izatekotan, gatazkan zerikusia daukaten aldeei entzun beharko die aurretiaz.
- e) Estatutuen interpretazioak sortarazitako iharduketetan Nazio Konferentziara jo ahal izango du, eta beronek ebatzi behar izango du Berme batzordearen txostenaren berri edukitakoan.
- f) Batzorde honen erabakiak gehiengoaren aldekotasunaz hartuko dira.

VII-SINDIKATUAREN BESTELAKO ORGANOAK

-24. art. - Prentsa Organoa

Sindikatuaren prentsa organoa «Iraultzen» da, eta Komunikazio Arloak dinamizatu eta jagoten du, berez Idazkaritza Nazionalaren erantzukizuna delarik. Honek, Iraunkor Nazionalaren bitartez, afiliatuei erregulariki eta dohainik banatzeko beharrezko baliabideak ezarriko ditu.

VIII-ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

-25. art. - Sindikatuaren ondarea eta finantzaketa

Honakoek osatuko dituzte Sindikatuaren baliabide ekonomikoak eta ondasunak:

- a) Afiliatuen kuotek.
- b) Sindikatuaren aldeko dohaintza eta legatuek.
- c) Eman dakizkiokeen dirulaguntzek.
- d) Ondare-ondasunen errentek eta beraien besterenganaketaren emaitzak.
- e) Zerbitzuen prestazioan eskuratutako sarrerek.
- f) Estatutuetako manuekin bat lortutako beste edozein baliabidek.
- g) Sindikatuak eskuratutako edo berari dohaindu zein legatutako ondasun higigarri eta higiezin guztiek.

-26. art. - Balantzea eta aurrekontuak

Idazkaritza Nazionalak Iraunkor Nazionalaren proposamenez ezagutu eta onartuko du urtero emaitza eta balantzearen kopurua. Halaber, hurrengo urterako aurrekontu proiektua ere onartuko du, arlo honetarako ihardunbideak zehaztuz.

Idazkaritza Nazionalak balantzeko datuak egiaztatzeko beharrezko deritzen neurri guztiak hartu ahal izango ditu.

-27. art. - Sindikatuaren erantzukizun ekonomikoa

LABek ez du bere gain hartuko, estatutuetan ezarritakoaren arabera finantza politikaren ardura-dun diren organoek hartutako erabakietatik eratorritakoak ez diren ekonomi edo ondare ekintza zein obligaziorik.

-28. art. - Administrazio-erantzukizuna eta erantzukizun pertsonala

Iraunkor eta Idazkaritza Nazionalak izango dira administrazio eta pertsonal kudeaketaren arduradunak eta organo-eskumendunak; pertsonala, alokairuak, aretoak, zerbitzuak, e.a.i buruzko politika berbera garatuko dute Sindikatu osoan, arlo hauetan funtzionamenduaren arrazionaltze eta hobekuntza ahalbideratzeko xedez.

-29. art. - Kuota

Kuota kopurua ezartzea Idazkaritza Nazionalaren eskumena da eta urtero erabakiko du.

Idazkaritza Nazionalak afiliazioaren ezaugarrien arabera aldatu ahal izango du, aurretiaz jakinarazirik, ordainkera eta kuota mota desberdinak ezarri.

IX-SINDIKATUAN DEDIKATU DIHARDUTEN PERTSONAK

-30. art. - Sindikalistak

Ardura sindikalak direla eta, Sindikatuan era batez edo bestez dedikazio zuzena daukaten militanteak jotzen dira halakotzat. Hautaketa bidez esleitzen zaie ardura, Estatutu hauetan ezarrita dauden gidaritza eta ordezkaritza organo eta egiturako maila desberdinetan dagozkien zereginak bete ditzaten.

Pertsona hauek eta Sindikatuaren artean borondatezko elkarrekiko identifikazioa ezartzen da, eta inolako lan lokarririk gabeko elkarketa jitea izango du.

Elkarrekiko konfidantza eta leialtasuna izango dira, karguak hautatu egiten direnez edozein unetan amaitu ahal izango den harreman berezi horren balio iraunkorrak.

a) Dedikazio osokoak.

Gidaritza organoek beharrezko iritziz gero, edozein sindikalista proposatu ahal izango da, Sindikatuan bere ardura dedikazio osoz bete dezan.

Hauek Sindikatuarekin edukiko duten lotura ez da inoiz lan harremantzat hartuko, eta elkarketa eta ordezkaritza izaera edukitzen segituko du.

Pertsona hauei organo eskumendunek honetarako zehazten duten ordain ekonomikoa emango zaie.

Dedikazio osoa daukaten pertsonak Idazkaritza Nazionalak izendatuko ditu eta, dagokienean, kargua uztaraziko, edukiko duen edo daukan ardura mailari dagokion organo edo arloaren proposamenez.

b) Ordu-kreditudunak

b.1) Eskuorde sindikalak.

Sindikatuaren gidaritza organoek beharrezko iritziz gero, zenbait zeregin sindikal burutzeko pertsona eskuorde baten dedikazioa erabaki ahal izango dute kasu bakoitzean ezarritako ordu kopuruez.

Kasu hauetan ezein erabaki hartu baino lehen ondo aztertu beharko da hautaketak ukitzen duen Sailatal Sindikalaren egoera eta iritzia.

b.2) Langilegoaren eskuordeak eta batzordekideak.

Sindikatuaren gidaritza organoek, Sailatal Sindikalarekin adostu ondoren, eskuordeen ordu-kredituak edo berauen pilaketa egiturako edozein mailatako zeregin sindikaletarako erabiltzea erabaki ahal izango dute.

Pertsona hauek Sindikatuarekin edukiko duten loturak borondatezkoa eta elkarketa jitekoa izaten segituko du, eta lan harreman arrunta edukiko dute euren enpresarekin.

c) Laguntzaile sindikalak.

Sindikatuaren ihardueran unean uneko harremana daukaten pertsonak dira.

X-ESTATUTUEN ERALDAKETA

-31. art. - Estatutuen eraldaketa

Estatutu hauek Biltzarrean -ohizko zein apartekoan baino ezin izango dira aldarazi.

XI-SINDIKATUAREN DESEGITEA

-32. art. - Sindikatuaren desegitea

Sindikatua desegiteko, ondore hauetarako soilik egingo den aparteko Biltzarrean botoa emateko eskubidea daukateneanetik 4/5ren aldeotasuna behar da. Biltzarre berorretan erabaki behar da Sindikatuak une horretan daukan ondarearen likidazioa.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

-1. Fundazioa

Gure proiektu sindikalaren garapenerako prestakuntzak daukan funtsezko garrantzia dela eta, Idazkaritza Nazionalak gogoetari ekin beharko dio Sindikatuari arlo honetan beharrezko zaizkion ihardunbideak garatu eta, halaber, gure gizarteko beste arlo batzuekiko topaketa positiborako marko bat ezartzeko tresna izango zaion organo bat (Fundazioa) sortzeko.

-2. Zonaldeztaketa

Sindikatuaren, eta zehazkiago, egitura eta organoen antolakuntza bilbea argitu eta zehazteko, Idazkaritza Nazionalak herrialde bakoitzeko zonaldeztaketa egokia ezarri beharko du. Esandakoa gauzatzen ez den bitartean, orain arte erabilitako berak iraungo du.

-3. Euskalduntzea

Geure azken Biltzarrean euskararekiko hartutako konpromezuari eutsiz, Idazkaritza Nazionalak erakundearen maila guztietako ardura bakoitzaren hizkuntz gaitasuna zehazteko plangintzari ekin behar dio.

ERANSKINA

-KOORDINATZAILE NAGUSIAREN AHALMENAK

Koordinatzaile Nagusiak honako ahalmen hauek edukiko ditu:

- a) Edozelako egintza edo kontratuetan, epaiketa zein bestelakoetan sindikatua ordezkatu eta berorren sinadura erabiltzea.
- b) Pertsonala izendatu eta kanporatu, eta soldatak, ordainketak eta eginkizunak erabakitzea.
- c) Gizarte gaietan gidaritza gauzatzea.
- d) Ganbio letrak eta bestelako igorpen agiriak edo berauen protesta igorri, onartu, endosatu, helbideratu, negoziatu, kobratu eta ordaintzea. Edozein banku edo mailegutegitan, bai eta Banco de España edo beronen sukurtsaletan ere, kreditu kontuak eta kontu korronteak ireki, iraunarazi eta kitatzea, berorien pentsurako taloiak sinatu eta zenbatekoak eskuratzea.
- e) Edozein titulu edo kopurutako kobraketa eta ordainketak egitea, nahiz eta Estatu, Probintzia, Udalerri edo beste entitate bateko igorpenak izan.
- f) Aseguruak kontratatu, primak ordaindu eta egoki litezkeen kalteordainak kobratzea.
- g) Edonolako ondasunak errendatzea, libreki hizpatzen diren itun, era eta baldintzetan.
- h) Salerosketa kontratuak eta berorien hipoteka zein azpihipoteka trukaketa egin eta kitatzea, bai eta uko, atzerapen eta lerrun erreserbarako eragiketa erregistralak egitea ere, indarrean dauden legezko xedapenak zainduz beti.

Ondasun higigarri eta merkatalgaien gaineko eragiketa beroriek egitea, bai eta bahiak eta hipotekak ere.
- i) Mailegu kontratuak eta zor zein bermeen aintzatespenak ituntzea, Sindikatuaren ondasunak zorren segurtasunari lotuz Legeak onartzen duen eran.
- j) Notari aktak egin eta jakinarazpen zein agindeiei erantzutea.
- k) Sindikatuari interesa dakizkiokeen gaiak Tartekarien iritzia erantziaren pean jartzea; transakzio eta konpromezuak eskuestea; edonolako ukoak egitea; taxu, atzera-eskuratze edo bestelako lehenespenetarako eskubideak erabiltzea zein ez.
- l) Abokatu eta Eskuordekoen aldeko epai botereak eskuestea, komenigarri deritzon zabaltasunaz.

- m) Erregistro zein higiezin jiteko eragiketak burutzea Sindikatuaren ondasunen gainean, bai eta bereizketak, zatiketak eta obra berriaren adierazpenak ere.
- n) Edonolako lehiaketa, enkante, lehiaketa/enkante eta, oro har, Administrazio Zentral, bertokoa edo entitate eta erakunde autonomo eta partikularren aurreko lizitazioetan parte hartzea, proposamenak eginez, behinbehineko edo behinbetirako adjudikazioak onartuz, behinbehineko edo behinbetirako finantza eta bermeak ezarriz eta kenduz, eta ondore hauetarako behar diren agiri publiko zein pribatu guztiak sinatuz.
- o) Lan Administrazio, Lan Eskuordetza, Lan Zuzendaritza Nagusia, Gizarte Epaitegia, Lan Epaitegi Nagusia eta Auzitegi Gorenaren Seigarren Aretorekin aurrean agertu eta bertan, edonolako espediente, epaiketa eta auziak, komenio kolektiboen edo lan gatazka kolektiboen negoziazioa, greba izapidetza, lan agintaritzaren aurreko espediente eta salaketan aurkezpena egile, demandatu edo bestelako jitez hertsatu, segitu eta amaitzea, eskabi-deak, ekintza eta salbuespenak edo izapide eta errekursoak bai eta kasazio errekurtsua ere eginez.
- p) Lan, Sanitate eta Gizarte Segurantzaren eta Ekonomia Ministaritzaren menpeko Institutuen edo presentzia sindikala daukan hiruparteko beste edozein institutuen aurrean agertzea; manifestatu eta biltzeko eskubidearen erabilpenarekin zerikusia daukan edozein auzi edo izapidetan parte hartzea; enplegua araupetzeko espediente auzietan eta alor edo lurralde birmoldaketarekin zerikusia daukaten negoziatioetan parte hartzea; eskuorde eta batzordekideak hautatzeko deialdia edo hautaketarekin zerikusia daukan edozein izapidetan parte hartzea, LAB Autonomi Administrazioaren eraturako zein eratugabeko organoen aurrean ordezkatzeko dagokion lurralde eremuan.
- q) Eta, orohar, kudeaketa, administrazio, xedapen zein karga egintza eta negozio juridiko orotan parte hartzea, bai eta abalatu zein fidantzatzeko ere.